



Ajangizko Udala

AJANGIZKO UDALAK 2007KO ABUZTUAREN 13AN OSPATUTAKO EZ OHIKO BILKURAREN AKTA.-

Batzarreratuak:

Alkatea:

Koldo Carbonell Oihartzabal jauna

Zinegotziak:

*Jabier Berrojalbiz Bidaguren jauna
Angel Luis Uribarri Gondra jauna
Maria Angeles Goikolea Uriarte andrea
Beñat Erezuma Arisketa jauna
Jasone Bernaola Aurrekoetxea andrea
Roman Etxeandia Zabala jauna*

Idazkaria:

Dña. Saioa Pineda Aranburu andrea

Ajangizko Udaletxean, 2007ko abuztuaren 13an, arratsaldeko 18:00etan eta horretarako deidaldia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da ez ohiko bilera ospatzeko, goian aipatutako zinegotziekin.

Bilkura hasi aurretik, Alkate jaunak Urdaibaiko Patronatoak, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Patronatoan Udalek duten ordezkarietarako hautagai zerrenden aldarrikapena burutuz 2007ko abuztuaren 7an hartutako ebazpena bidali duela azaltzen du. Ebapena gai zerrenda itxita zegoela bidali dutela kontutan hartuta, eta hautagai zerrenda hauek Udal Osoko bilkuran bozkatu eta 2007ko irailaren 14-a baino lehen Patronatora bidali behar direla kontutan hartuta, gaur ospatu behar dan Bilkuran aurkeztea proposatzen du.

Udalbatza osatzen duten kideek aho batez onartzen dute proposamena, eta gai zerrendako lehen puntuan aurkeztea adosten dute.

Esandako orduan, Alkate Presidenteak gutxienezko kopurua dagoela ikusita, hasiera ematen dio bilerari.

1.- URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAKO PATRONATOAN UDALEK DITUZTEN ORDEZKARIAK HAUTATZEKO AURKEZTUTAKO ZERRENDEN IZENDAPEN ETA ONARPENA, BEHAR BADA.-



Ajangizko Udala

Urdaibai Biosferako Lehendakariak 2007ko abuztuaren 7an hartutako erabakiz, Urdaibai Biosfera Erreserbako Patronatoan udalek dituzten ordezkariak hautatzeko aurkeztutako zerrendak aldarrikatzen ditu.

Aurkeztutako zerrendak kontutan hartuta, ebazpenak bi zerrenda aldarrikatzen ditu:

- bata Partido Nacionalista Vasco-Eusko Alderdi Jeltzaleak (PNV-EAJ) aurkeztutakoa
- bestea Eusko Alkartasuna (EA) eta Eusko Abertzale Ekintza - Acción Nacionalista Vasca-k (EAE-ANV) batera aurkeztutakoa.

Bi zerrendak botaziora aurkeztuta, honako emaitza jaso da:

EA-EAE/ANV-k aurrekutatutako zerrenda:

- Aldeko botuak, bost, EAE-ANVko ordezkariak
- Kontrako botuak, bi, PNV/EAJko ordezkariak
- Abstentziorik ez dago.

PNV-EAJk aurkeztutako zerrenda:

- aldeko botuak, bi PNV/EAJ taldeko ordezkariak.
- kontrakoak, bost, EAE/ANVko ordezkariak.
- Abstentziorik ez dago.

Jasotako emaitzak kontutan hartuta, Alkate Presidenteak EA-EAE/ANV taldeak aurkeztutako zerrenda aldarrikatzen du onartuz, bozketaren emaitza Udaibaiko Biosfera Erreserbako Patronatoko Lehendakariak bidaltzeko aginduz.

2.- MENTZETARA DOAN BIDEA EGOKITZEKO I. FASEKO LANEN ESLEIPENA BEHAR BADA.-

Mentzetara doan bidea egokitzeko lanei dagokionez, Alkateak Aner Pinedo Zaballa jaunak lanen zuzendaritzari uko eginez aurkeztutako idatzia irakurtzen du. Uko egite honen ondorioz, udaleko arkitekto aholkularia den Humberto Fernandez Pascual jaunari eskainiko zaiola zuzendaritza aipatzen du.

Horrez gain lurren desjabetzaren prozeduraren berri ere ematen du, jabe guztiek okupazio aurreko akta sinatu dutela azalduz. Desjabetzaren bidez lurak eskuratzeko aurrekontua aldatu beharra ere azaldu du, 2007rako udal aurrekontuan 7.000 euro aurreikusten baitziren eta guztizko kopurua 11.325,16 eurora iritzi baita.

Lan hauek burutzeko Bizkaiko Foru Aldundiak 36.000 euroko dirulaguntza onartu du.

Azkenik, lanak burutzerakoan proiektuaz aparte zenbait lan burutzeko asmoa ere azaldu du Alkateak: alde batetik bidean abiadura murrizteko asfalterekin burutzeko badenak jartzea, eta bestetik bidean zehar gerorako tubo bi jartzea. Horretarako aurrekontua eskatu behar da.



Ajangizko Udala

Roman Etxeandia zinegotzi jaunak desjabetzapenari buruz jarritako errekursoak konpondu diren galdetzen du.

Alkateak baietz erantzuten dio, interesdunari hartzen zaizkion metro karratuak gutxitu egin direla eta berarekin akordioa lortu dela.

Angel Luis Uribarri jaunak lanak hasterakoan errepidean izan daitezkeen eragozpenak murrizteko Lurraskarekin hitzegin duela komentatzen du, bertatik pasa behar diren autobusen egutegia emango dutela azalduz, egun horietan bidea zabalik egon daiten ziurtatzeko.

Jabier Berrojalbiz jaunak berriz, lanak burutzen ari direla Antxosolo inguruan dauden ur arazoak ere kontutan izan beharko direla aipatzen du.

Alkate jaunak, enkantean partehartzaileek aurkeztutako dokumentazioa kontutan hartuta, jaso diren emaitzen berri ematen du:

- ASFALTADOS OLARRA, S.A. (114.392,00 + 18.302,72)	129.400,00 €
- CONSTRUCCIONES MORGA S.L. (104.992,17 + 16.798,75)	121.790,92 €
- PROBISA (111.465,52 + 17.834,48)	132.694,72 €

Enkantearen gehieneko kopurua 132.695,57 euro zirela kontutan hartuta.

Kontratazio Mahaiak aurkeztutako proposamena kontutan hartuta, Udal Osoko Bilkurak, batzartutako zinegotzien aho batez, honako hau ebatzen du:

1.- Mentzetara doan bidearen (I. fasea) egokipenerako lanak CONSTRUCCIONES MORGA S.L. enpresari esleitzea, guztira 121.790,92 euroko kostuarekin eta bi hilabeteko exekuzio epea betez, Baldintza Partikularrak arautzen dituen Pleguak jarritako gainerantzeko baldintza guztien arabera, beti ere, kontratistak eskeinitako gainerantzeko zehazketak kontutan hartuta.

2.- Ebazpen honen berri lehiaketan parte hartu duten lehiatzaile guztiei ematea.

3.- Ebazpen honen berri Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari ematea.

2.- ABADETXXEA KULTUR ETXE BILAKATZEKO II. FASEKO LANEN 1. ZIURTAGIRIAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Ajangizko Udal Gobernu Batzordeak, 2007ko maiatzaren 10ean ospatutako batzarrean, besteak beste, "Ajangizko Kultura ekipamendua. Erabilera ugarirako gelak, ordenagailu gela



Ajangizko Udala

eta arte plastikoetarako tailerra" sortzeko lanak CONSTRUCCIONES MALAXETXEBARRIA ANAIK S.L., enpresari esleitzea onartu zuen, guztira 216.129,48 euroko kostuarekin.

Udal arkitektoak, lanen zuzendari modura, 99.854,15 euroko lanen 1. ziurtagiria aurkeztu du, burututako lanen adierazle.

Ziurtagiriei, Construcciones Malaxetxebarria Anaiak S.L. enpresak 99.854,15 euroko kostu orokorarekin aurkeztutako F34-2007 faktura eransten zaio.

Aurkeztutako dokumentazioa kontutan hartuta, Udsal Osoko Bilkurak aho batez ebazten du:

1.- "Ajangizko Kultura ekipamendua. Erabilera ugarirako gelak, ordenagailu gela eta arte plastikoetarako tailerra" sortzeko lanen lehen ziurtagiria onartzea, 99.854,15 euroko kostu orokorarekin.

2.- Construcciones Malaxetxebarria Anaiak S.L. enpresak aurkeztutako 83.090,85 euroko kopuru orokorra duen faktura onartzea.

3.- Ebazpen honen berri interesdunei ematea jakitun izan daitezen eta dagozkien ondorioak sortu ditzan.

3.- GIZARTEKINTZA SAILA: ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA.-

4/2007 Esp.

Etkez-etxeoko laguntza zerbitzuari dagokion 3/2007 espedientea aurkeztu du gizarte laguntzaileak.

Teknikariak egindako txostenaren arabera, laguntza mota hau jasotzeko baldintzak betetzen dituzte eskatzaileek.

Eskatzaileek eguneko ordu beteko laguntza eskatzen du, beharizana behar bezala bete ahal izateko; ahal baldin bada lehenengo orduan.

Udal teknikariak egindako txostena aintzat hartuta, Udal osoko bilkurak aho batez ebazten du:

1.- Ajangizko Udaleko 2007ko etkez-etxeoko laguntzarako 3/2007 espedientea onartzea, eguneko ordu beteko laguntza onartuz, datorren irailaren 3tik aurrera.

2.- Jasotako zerbitzuaren ordainez, interesdunak onartutako tasa ordaindu beharko du.

3.- Ebazpenaren berri udal gizarte laguntzaileari ematea, dagozkion neurriak hartu ditzan.



Ajangizko Udala

4.- Erabaki honen berri interesdunari ematea jakitun izan dadin eta dagozkion ondorioak sortu ditzan.

4.- 2008 URTEKO HERRI JAIEGUNAREN ZEHAZPENA, BEHAR BADA.-

Ekainaren 19ko 102/2007 Dekretuaren bidez (uztailaren 13ko 135 zenbakidun EHAA) Euskal Autonomia Erkidegoko Langileen 2008 urteko jaieguna egutegia onartu zuen Eusko Jaurlaritzak.

Dekretuaren 2.2 artikulua xedatzen duenaren arabera, udalek dekretua argitaratu eta hilabeteko epea daukate tokian tokiko jaieguna proposatzeko.

2008 urtean Jaunaren Igokunde eguna maiatzak 1 jaiegunarekin bat egiten duela kontutan hartuta, Ajangizko jai egun modura maiatzak 15 San Isidro izendatzea proposatzen da.

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak egindako deialdia kontutan hartuta, Udal Osoko bilkurak aho batez ebatzen du:

- 1.- 2008ko maiatzaren 15a San Isidro eguna, Udalerri osorako jaieguna modura proposatzea.
- 2.- Ebazpen honen berri, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari ematea.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da arratsaldeko zazpiak laurden gutxi direnean, eta honen sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen aldetik, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

ALKATEA

BITARTEKO IDAZKARIA